

BAUDONNE BASERRIA EMAKUME PRESOENTZAT

Kartzelaldiaren zati bat baratzean, autoestimua eta autonomia eskuratzeko asmoz

Baionatik kilometro batzuetara, Tarnosen sortu dute Baudonne Baserria, kartzela zigor luzea pairatzen ari diren emakumeentzat. Baratze gintza ekologikoa zentroan jarriz, presoek kaleratzea eta ongizatea lantzea izango du xede gunearen ardura duen Emmaus elkarteak. Sei hilabete eta bi urte artean pasatzen ahalko dituzte bertan, presondegiak lapurtu duintasuna eta autonomia berreskuratzeko helburuz. Apirilean etorriko dira lehen presoak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Grabagailua pizteko astirik eman gabe hasi da hizketan Gabi Mouesca. Doi-doi motxila pausatzeko denbora ukan eta jada hor gara, Baudonne deitu eremuan, ibilki: "Hor izango dira logelak, indibidualak, bakoitzean izanen dituzte dutxa eta komunak, hor izanen da leku kolektiboa, hor izanen da jantokia, langileek, laguntzaileek eta presoek elkarrekin janen dugun gunea, hor izanen dira hiru apartamentuak, behar orduan amak umeekin egoteko gisan, hor izanen da baratzea". Guneak ukanen du berebiziko garrantzia helburuak betetzeko bidean. Kartzela zigor luzea pairatzen ari diren emakumeentzako bizitoki bat izanen da Baudonne, espetxealdiko azken hilabeteak bertan pasako dituztela. Autonomia eta duintasuna berriz ere eskuratzeko eta kaleratzea prestatzeko gunea izanen da. Apirilean etorriko dira lehen zazpi emakumeak. Datorren urte-tik aitzina hamar leku izanen dira.

Azken urteetan proiektua marrazten eta gorpuzten aritu den Mouescarekin bildu gara. Biharko jantokia baina oraingoz bi ordenagailu, 2020 egutegi bat eta ezer gutxi gehiago duen anarteko bu-

legora itzuli gara. Aurkezpenarekin segitzen duela, hitzen jarioa moztu diot, hark erabilitako hitzak hark erabili bezala erabiltzeko garrantziaz ohartarazi eta grabagailua pizteko denbora galdetuz. "Ikusten dituzu paretan dauden hiru portretak horiek? Badakizu nor diren? Pierre abadea, hori ezagutzen dukezu, eta ondoan Georges Legay eta Lucie Coutaz, hiruak dira Emmausen sortzaileak. Emmausen DNAn preso bat daukagu, Georges famatu hori, 20 urte preso pasatakoa. Nik diot Frantziako kartzeletan diren 71.000 pertsonen artean 71.000 Georges potentzial ditugula: haien bizian eta komunitatearen bizian eragile izateko gomita egiten badiezu, gehien-goak *bale, egin dezagun* erantzungo dizu. Gomita hori luzatu nahi dugu baserri horrekin, Pierre abadeak egin zuen gisara".

Aurten 70 urte beteko dituen Emmaus egituraren esku izanen da Baudonne Baserria. Gisa horretako beste bi baserri daude Frantziako Estatuan, biak Emmausek kudeaturik eta hau da hirugarrena baina emakumeentzako lehena. Mouesca da gune horretako zuzendaria, postu hori betetzeko beharrezkoa izanen duen enpatiarekin, hark ere pasa



zituelako 17 urte preso, IK-ko militante gisa, 1984tik 2001era. "Preso askok -eta nik barne-kartzela urteetan osatu eskola aipatzen dute bergizarteratzeaz hitz egiterakoan eta berreraikitze bidean landu nahi dutenari buruz hitzak jartzea eskatzen zaiean. Bortizkeriaz eta mehatxuz osatutakoa da kartzela eta heriotzera garaman atmosfera horretan norberak bere burua babesteko eraiki behar izaten du eskola hori. Askatua zarenean, hilabeteak, urteak, hamarkadak behar dituzu hori desegiteko, eta batzuk inoiz ez dute lortzen".

BARATZEGINTZA ZENTROAN

Baudonne Baserria du izena Baionatik kilometro batzuetara Tarnosen dagoen proiektuak. Oinarrian baratze bat delako. Hiru hektarea lur, barazkiak ekoizteko modu ekologikoan. "Lur oso ona, Biharko Lurraren Elkarrekin erran digunaz. Ehun urteren buruan ere oso ona izaten segituko duena", dio poz-pozik Mouescak. Presoak izanen dira baratzeaz, astean 26 orduko lan kontratupean, soldatapean.

Bergizarteratzeko eta norberak bere burua osatzeko prozesuan baratze gint-



BAUDONNE BASERRIKO zuzendaria den Gabi Mouesca, baratzeari begira

tzak ukan dezakeen gainbalioa handia da. Landatu, hazi, zaindu, bildu, prozesua errepikatzeko haziak errekuperatu, guztia elikatzeke, norberak bere burua ala ondokoa. Horrek dakarren autoestimua ez da ttikia. Nahi duenak baratzegintzan formatzeko aukera ukanen du, Hazparneko eta Oyereluyko ikastetxeekin elkarlanean. Goizak pasako dituzte baratzean, arratsaldeak bestelako kontuei bideratzeko: artea, kultura zein kaleratzea eta berrosatzea lantzeko prozesua, adibidez.

ESKAERA PRESOK LUZATUKO DU

Zigor bukaera bertan egiteko eskaera luzatzen ahalko du nahi duenak. Presoak eskaera gutuna bidaliko du Baudonnera –zuzenki edo gizarteratzeaz eta probazioaz arduratzen den kartzelako kontseilaritik pasaz-. Gutuna errezibiturik, presoaren ezagutza eta proiektua zehazki azaltzera joanen dira Mouesca edota Maude izeneko hiztzailea. Elkar ezagutza bi aldeentzat ongi pasa bada eta proiektuaz interesaturik segitzen badu, 48 orduko irteera baimena eskatuko dio presoak zigorraren aplikazioaz arduratzen den kartzelako epaileari. Baserrian pasako ditu bi egun, baratzegintza, gunea, taldea, zein testuinguru orokorra deskubritzen. Guzti hori eta gero, bertaratzeko xedearekin segitzen badu eta Baudon-

ne Baserrikoek ere begi onez ikusten badute bere etorrera, orduan baimen berezia eskatu beharko dio zigorraren gauzapez arduratzen den kartzelako epaileari. Sei hilabetetik bi urtera arteko denboraldia pasatzen ahalko du bertan presoak. “Sei hilabete baino guttiago izatea errefusatu genuen, sei hilabeteko epea gutxiengoa delako pertsona baten geroa prestatu ahal izateko, hori baino denboraldi laburragoan ezin dugu, ez dugu mago ziririk”.

Preso estatusa ukaten segituko dute. Hori horrela, Baudonne zenbatetaraino presondegi izango den galdetu diot. Makila eskuan, kepia buru gainean, bere burua presondegiko zuzendari gisa deskribatu du ozen-ozen, irriz, horrelakorik ezin irudikatua zaiolako. “Bizileku bat izango da, gogoia ukateko gogoia berriro emanen diegu kartzelak desegituratutakoei. Honera etorri hori da aurkituko dutena: konfiantza. Esperientzia z badakit fidagaiztasuna dela kartzelako hitza. Konfiantzarik gabe lurbeltz hil bat daukagu. Konfiantzan oinarrituko den bizileku bat topatuko dute hemen. Baina konfiantzak ez du kontrola tratatzen,

barne-arautegi bat irakurriko, ulertuko eta izenpetuko dute heltzerakoan. Zigorren Aplikaziozako epailearen eta bergizarteratzeaz eta probazioaz arduratuko den aholkulariaren manuak ere hor izango dira”. Ondoko galdera bati erantzundakoa izan zitekeen galdera horrenzako erantzuna ere: “Abolizionista naiz. Kartzelen bukaera mende honetan etorriko da baina nik ez dut ezagutuko. Haatik, bizitasuna xurgatzen dizun ziegako atmosferan ordez, baratzte batean, sorkuntzan zein ametsetan izateko aukera eskaintzea ez da gutti. Hemen pasako dituzte hilabeteak. Behintzat denbora hori ez dute pasatua izango desegituratze eta desozializazio denboraldian”.

Goizak pasako dituzte baratzean, arratsaldeak bestelako kontuei bideratzeko: artea, kultura zein kaleratzea eta berrosatzea lantzeko prozesua

Apirilean jinen dira lehen emakumeak baserrira. Taldeak gogotsu hartuko ditu: Mouesca berak, laguntzaileek, Genepi elkartean aspaldidanik militante den Maude hezitzaileak eta baratzezaina izateaz gain ergonomista ere den

Alexandrek. “Kartzelak akitu dituen gorputzak izaki, gorputzak eta mugimenduak ezagutzen eta zaintzen dituen baratzezain batekin ongi gaude. Garrantzitsua da hori ere”. ●